



LEHENDAKARITZA

Koordinazio eta Proiektu Estrategikoen
Idazkaritza Nagusia
Araubide Juridikoaren Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de Coordinación y
Proyectos Estratégicos
Dirección de Régimen Jurídico

Ebazpena, Araubide Juridikoaren zuzendariarena, nazioarteko harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen dekretu-proiektuari buruzko aurretiazko kontsulta publikoa egiteko dena.

Resolución del Director de Régimen Jurídico por la que se somete a consulta pública previa el proyecto de Decreto por el que se regulan las becas de formación de jóvenes en el ámbito de las Relaciones Internacionales.

Lehendakaritzak Nazioarteko Harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea aurreikusi du.

Lehendakaritza tiene previsto iniciar el procedimiento para la elaboración del proyecto de Decreto por el que se regulan las becas de formación de jóvenes en el ámbito de las Relaciones Internacionales.

Xedapen Orokorrak egiteko prozedura ezartzen duen ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11.artikuluaren xedatutakoaren arabera, xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemailearen proposamena idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia.

De conformidad con lo dispuesto por el artículo 11 de la Ley 6/2022, del 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, el órgano o centro directivo promotor de la tramitación de la disposición de carácter general recabará en consulta pública previa y, con carácter previo a la redacción de la propuesta de texto jurídico normativo, la opinión de la sociedad.

Aldez aurretiko kontsultaren izapidearen iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita egingo da.

El trámite de consulta pública previa se realizará mediante el anuncio en el tablón de anuncios de la sede de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Aldez aurretiko kontsultaren iragarkiak herritarrei gonbidapena egingo die ondorengo alderdiei buru iritzia eman dezaten:

El anuncio de consulta pública previa invitará a la ciudadanía a que se pronuncie acerca de los siguientes aspectos:

- a) Araua onestearen premia eta egokitasuna.
- b) Arauaren xedeak.
- c) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.

- a) La necesidad y oportunidad de aprobar la norma.
- b) Los objetivos de la norma.
- c) Los problemas que pretende solucionar.





d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Aurrekoa betez, ebazpen honen bidez herritarrei dei egin zaie ebazpen honen eranskinean jasotako alderdiei buruzko iritzia eman dezaten **15 eguneko epean**, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

En cumplimiento de lo anterior, a través de esta resolución se invita a la ciudadanía a que, **durante el plazo de 15 días**, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta resolución en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se pronuncie acerca de la información contenida en el anexo de esta resolución.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean,

Abel López de Aguilera Quintana,

Araubide Juridikoaren zuzendaria

ERANSKINA

Dekretu-proiektua, Nazioarteko Harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen.

Aldez aurretiko kontsulta herritarrei

1.- Araua onestearen premia eta egokitasuna.

Prestakuntza-beka horien berehalako aurrekariak honako hauek dira: 62/2017 Dekretua, martxoaren 21ekoa, Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak arautzen dituen; 12/2019 Dekretua, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen; eta 34/2023 Dekretua, martxoaren 21ekoa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuan unibertsitate-tituludunak prestatzeko beken programa sortu eta arautzen duena.

Beka hauen bidez, gazteek diplomazia instituzional-politikoaren, zientifikoaren, ekonomikoaren, kulturalaren eta kirolekoaren eremuan dituzten gaitasunak eta balioak indartzen lagundu nahi da, giza garapen jasangarria eta giza eskubideen babesa erdigunean jarritz, printzipio demokratiko eta berritzaileak sustatuz, eta ekintza hori jasangarritasunarekin, berdintasunarekin eta euskal gizartearen konpromisoekin lerrotatuz.

Argi dago beharrezkoa eta egokia dela Kanpo Ekintzaren, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloko eta Garapenerako Lankidetzaren arloko beka-programak berrikustea, premia berrietara egokitzeko, talentua erakartzeko, hautaketa-irizpideak bateratzeko eta helburuak lortzeko eraginkortasun handiagoa lortzeko. Beraz, dekretu bateratu eta homogeneo baten bidez, egungo nazioarteko testuinguruarekin hobeto lerrotatuta, beken 4 ildo edo modalitate identifikatu dira: Europako gaiak; kanpoko euskal komunitatea; kanpokoak, erakunde aldeaniztunak eta 2030 Agenda; eta garapenerako lankidetzaren eta nazioarteko elkartasuna.

2.- Arauaren xedeak.

Beka hauek arautzen dituen Dekretua izapidetzeak gazteei prestakuntza-aldi batean parte hartzeko aukera emateko beharrari erantzuten dio. Prestakuntza-aldi hori Euskadi nazioarteko taulan eta maila anitzeko gobernantzan eragile protagonista eta giltzarri gisa hartzen duten gaiei buruzkoa da, eta egungo eta etorkizuneko politikak diseinatzen dituzten foro globaletan parte hartzen du, irtenbide globalak garatzen laguntzeko.

Bekak Kanpo Harremanen eta 2030 Agendaren arloan eskumena duen Idazkaritza Nagusiaren bulegoetan, kanpoko ordezkartzetan edo mendeko bulegoetan, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzian edo harekin lotutako erakundeetan garatu ahal izango dira, bai eta erakunde aldeaniztunetan, instituzioetan, antolakundeetan, Think tanks-etan, elkarteetan edo nazioarteko sareetan ere, haiekin aldez aurreko lankidetzaren akordio baten bidez.

Dekretuak, beraz, honako gai hauei erantzuten dieten beka-modalitateak jasoko ditu: Europako gaiak, kanpoan den euskal komunitatea, Kanpo Harremanak eta Erakunde Multilateralak, 2030 Agenda, bai eta garapenerako lankidetza eta elkartasuna ere.

3.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Eskala unibertsaleko eraldaketa-prozesu batean murgilduta bizi gara, eta, testuinguru horretan, Euskadik esparru aldeaniztun bat defendatzen du, alderdi asko inplikatu nahi dituen, eta horrek izaera inklusiboagoa eta eraginkorragoa ematen dio erronka globalei heltzeko.

Dekretu honen helburua da gazteak erakartzea eta nazioarteko harremanetan prestatzea, ikuspegi orokor, sakonago eta diziplina anitzeko ikuspegi batetik. Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkaritza nagusiak gazteak nazioarteko harremanen eremu guztietan prestatzea azpimarratzen du, eta, misio hori osorik betetzeko, beken programak egungo kanpo-ekintzaren zabaltasuna eta aniztasuna garatu eta islatu behar du. Horrela, egungo nazioarteko agendan funtsezkoak diren bi arlo sartzen dira: 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriaren Helburuak, bai eta garapenerako lankidetza eta elkartasuna ere. Eremu estrategiko horietan, Euskadik profesional espezializatuak behar ditu.

4.- Bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

1995. urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzak Lehendakaritzakoak diren Europako Gaien eta Eskualdeen arteko Lankidetzaren arloetan profesionalak espezializatzeko beka-politika izan du.

Une hartan egokitzen joan zen Kanpo Harremanen, Europako Gaien eta Euskal Gizataldeen eremuko bekak bereizita arautzea. Hala ere, egindako deialdietatik lortutako esperientziaren ondoren, eta Lehendakaritzaren funtzio- eta antolaketa-egitura kontuan hartuta, egokitzen jotzen da modu bateratuan arautzea gazteak Europako Gaien, Kanpoko Euskal Komunitatearen, Kanpo Harremanen eta Erakunde Multilateralen eta 2030 Agendaren arloetan espezializatzeko bekak, bai eta garapenerako lankidetza eta elkartasuna ere, irizpideak bateratuz, baina, aldi berean, beka-modalitate horietako bakoitzaren espezifikotasunei eutsiz.

ANEXO

Proyecto de Decreto por el que se regulan las becas de formación de jóvenes en el ámbito de las Relaciones Internacionales.

Consulta previa a la ciudadanía.

1.- Necesidad y oportunidad de aprobar la norma.

Los antecedentes inmediatos de estas becas de formación lo conforman el Decreto 62/2017 de 21 de marzo por el que se regulan las becas de especialización y formación de profesionales en el área de cooperación al desarrollo; el Decreto 12/2019 de 29 de enero, por el que se regulan las becas de formación de jóvenes en el área de Acción Exterior y el Decreto 34/2023 de 21 de marzo por el que se crea y regula el Programa de becas de formación de personas tituladas universitarias en el ámbito de Transición Social y Agenda 2030.

Mediante estas becas se pretende contribuir al fortalecimiento de las capacidades y valores de las personas jóvenes en el ámbito de la diplomacia institucional-política, científica, económica, cultural, deportiva, poniendo en el centro el desarrollo humano sostenible y la protección de los derechos humanos, promoviendo principios democráticos e innovadores, y alineando esta acción con la sostenibilidad, la igualdad y los compromisos de la sociedad vasca.

Es evidente la necesidad y oportunidad de revisar los programas de becas del área de Acción Exterior, Transición social y Agenda 2030, y de la Cooperación al Desarrollo, para adaptarlos a nuevas necesidades con el fin de atraer talento, unificar criterios de selección y conseguir una mayor eficacia en consecución de los objetivos. Así pues, mediante un mismo Decreto unificado y homogéneo, mejor alineado con el contexto actual internacional actual, se han identificado 4 líneas o modalidades de becas: asuntos europeos; comunidad vasca en exterior; exteriores, organismo multilaterales y Agenda 2030; y cooperación al desarrollo y solidaridad internacional.

2.- Objetivos de la norma.

La tramitación del Decreto, por el que se regulan estas becas, responde a la necesidad de proporcionar a personas jóvenes la oportunidad de participar de un periodo de formación en materias que desarrollen el posicionamiento de Euskadi como actor protagonista y clave en el tablero internacional y en la gobernanza multinivel, participando en foros globales donde se diseñan las políticas del presente y del futuro, contribuyendo al desarrollo de soluciones globales.

Las becas podrán desarrollarse en dependencias de la Secretaría General competente en Acción Exterior y Agenda 2030, en cualquiera de las Delegaciones en el exterior u oficinas dependientes, en la Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad o entidades relacionadas, así como en aquellos Organismos Multilaterales, instituciones, organizaciones, Think tanks, asociaciones o redes internacionales con quienes se convenga, mediante un Acuerdo previo de colaboración.

El Decreto recogerá, por tanto, las modalidades de becas que responden a la materia de Asuntos Europeos, Comunidad vasca en el exterior, Acción Exterior y Organismos Multilaterales, Agenda 2030, así como la cooperación al desarrollo y la solidaridad.

3.- Los problemas que pretende solucionar la iniciativa.

Vivimos inmersos en un proceso de transformaciones a escala universal, y en este contexto, Euskadi defiende el marco multilateral-marco que buscan involucrar a múltiples partes, lo que le da un carácter más inclusivo y efectivo para tratar los desafíos globales.

Este Decreto pretende atraer y formar a personas jóvenes en relaciones internacionales desde una perspectiva general, de más calado, con un horizonte más amplio y multidisciplinar. La Secretaría de Accion Exterior y Euskadi Global pone énfasis en la formación de jóvenes en todos los ámbitos de las relaciones internacionales y, para cumplir plenamente esta misión, el programa de becas debe evolucionar y reflejar la amplitud y diversidad de la acción exterior contemporánea.

4.- Otras posibles soluciones alterenativas regulatorias y no regulatorias.

Desde el año 1995 el Gobierno Vasco ha mantenido una política de becas de especialización de profesionales en las áreas de Asuntos Europeos y Cooperación Interregional pertenecientes a Lehendakaritza.

En aquel momento se estimó oportuno regular de manera diferenciada las becas del ámbito de Acción Exterior, Asuntos Europeos y Colectividades Vascas. Sin embargo, tras la experiencia obtenida de las convocatorias realizadas, y atendiendo a la estructura funcional y organizativa de Lehendakaritza, se considera oportuno regular de forma conjunta las becas de especialización de jóvenes en las áreas de Asuntos Europeos, Comunidad Vasca en el exterior, Acción Exterior y Organismos Multilaterales, Agenda 2030, así como la cooperación al desarrollo y la solidaridad, unificando criterios, pero manteniendo a la vez las especificidades propias de cada una de estas modalidades de becas.